

2023/32 ALKATETZA EBAZPENA

Errezilen, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren hogeita bian eguerdiko hamabietan, udaletxeko bere bulegoan, eta neronek, Maria Etxeberria Urretabizkaiak, korporazioko idazkariak lagunduta, Severo M. Agirretxe Arrutik bere gain hartu du alkate lehendakaritza eta zera dio:

UDALEKU IREKIETAN BEGIRALE LANETAN ARITZEKO BEGIRALEAK KONTRATATZEKO OINARRIEN ONARPENA.

Ikusirik, urteroko moduan Errezilgo Udalak udaleku irekiak antolatuko dituela 3 urte 14 urte bitarteko haurrentzat.

Ikusirik begiraleak behar direla lan hori burutu ahal izateko.

Kontuan harturik udal honek ez duela inolako lan poltsarik lanpostu horiek betetzeko.

Kontuan harturik kontratazioa burutu ahal izateko epe laburretan gabiltzala, eta ohiko administrazio jakinarazpen moduak epez luzatzen direla.

Indarrean dagoen Toki Araubidea arautzen duen legediak alkatezari ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

ERABAKI DUT

Lehen.- Errezilgo Udalak antolatutako udaleku irekietan lan egiteko begiraleren kontratazio espediente onartzea. Ondorengo baldintzekin:

Baldintzak:

- Lan kontratu datak: 2023ko EKAINAREN 26tik UZTAILAREN 21era biak barne.
- 18 urte beteta edukitzea
- **BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAZIOA**
 - Euskara egoki menperatzea. PL 2a gutxienez izatea. Honela ez bada burutuko den elkarrizketan frogatu beharko du menperatze maila-2 puntu.
 - Herriaren ezagutza baloratuko da.
 - 3 puntu gehienez. Elkarrizketa bidez baloratuko da.
 - Begirale ikasketak edota hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak.
 - Begirale ikastaroa izatea: 3 puntu

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak: amaituta 2 puntu/ ikasketak egiten 0,5 puntu.
- Esperientzia izatea.
 - Herriko udalekuetan begirale egondako aldi bakoitzeko puntu bat/ herritik aparteko udaleku aldi bakoitzeko edo herrian begirale laguntzaile egindako bakoitzeko 0,5. Gehienez 5 puntu

Bigarrena.- Udal iragarki taulan honen berri ematea, izen emateko epea apirilaren 21a bitartekoa izango delarik.

Guztiaren berri emanez, nik, idazkariak fede ematen dut, goian adierazitako egun eta lekuan, eta nirekin batera, adostasunaren adierazgarri, alkate-lehendakariak izenpetu du.

Severo M. Agirretxe Arruti
Alkatea

Maria Etxeberria Urretabizkaia
Idazkari Kontu-hartzailea